

PADUA'KO ANTONIO DONEAREN
— — — — BIZITZA — — — —



ESKATU T'ARTZEN DITUZTE....

AITA AZKUE

ATV
8.735

M- 17694

R- 39301

ATV
P. 735

†

R. P. ANTONIO B. Y GIL. O. FR. M.

PADUA'KO ANTONIO DONEAREN

BIZITZA

AITA JOSE MARIA AZKUE

PRANTZISKO'TARAK

EUSKERATUA



DOTXAO URIGÜEN
BILBAO

NIHIL OBSTAT

FR. COSMAS LAMARAIN

Censor Ordinis.

IMPRIMI POTEST

ZARAUZ, DIE 29 MAJII 1929.

FR. ANTONIUS RECONDO

M. P.

NIHIL OBSTAT

LIC. PETRUS DE ANASAGASTI

Censor

IMPRIMATUR

VICTORIÆ, DIE 5.^a JUNII

MATTHÆUS EPISCOPUS VICTORIENSIS



ITZ-AUREA

Euskalerian Paduako Antonio donea ain ezagutua ta goretsia izanik, oso gutxi da bere egite aintzatsuak zabaltzeko euskeraz idatzi dana.

¿Nork esango luke?

Bederatziurén batzuek, esku-liburu bat edo beste,

(?) orixe da Santuaren euskal-elerti (1) guztia.

Utz au zerbait betetzearen dator bada «Paduako Antonio donearen Bizitza»; ez da luzea, laburra da; baña naikoa jaiotzatik eriotz arte Santua ezagutu ta bere onbideak jaraitzeko.

Bera goraltzeko izan bedi.

Zarautz 1929'ren urteko Otsailaren 28-an.

Euskeratzailea.

(1) Literatura.

I

Antonio donearen jaiotza ta gurasoak-Ikaste- txean-Agustin'daña-Lenengo mirariak.

Ez da eraz, lañiki bada ere, idegabeko Apostolu, Asisko Prantzisko donearen lenengo lagunetako bikain ta «mundu guztiko Santua» dan Paduako Antonio donearen irudi ditzikoñaren antz-egitea; ala ta guztiz ere, alegiñak egingo ditugu ori oetan, Paduako Miragileaganako oneraspena sinislien artean zabaldu dedin.

1195'ngo. Dagonilaren 15'an Andre Mariaren Jasokunde (Asuntzio) egunean, Lisboa'n jaio zan gizon ospetsu au. Bere gurasoak Martin de Bouillon eta Teresa de Tavera izan ziran, sendi ospetsu ta aundizkietakoak biek.

Martin jauna, Godofredo de Bouillon, Jerusalem'en izan zan lenengo later eregearen jatoritik zetofen, eta andre Teresa de Tavera'ren aurekoak beñiz Asturias'ko eregeak izan ziran. Ezkontza onetatik, uste danez, bost seme izan zituzten, lenengo gure Santua zalarik, eta eliz-nagusian bataiatua izan zan, eta Fernando izena jafi zioten.

Jatoriz odol garbikoak baziran bere gurasoak, onomenetan (birtutietan) askoz geiago atzaltzen ziran; fedea ta ontasuna ziran berentzat, mundu onetan euki zezateken ikuririk aintzatuena. Doai guztiak zerutik zetozela jakiñik, Jaungoikoa goraltzen etziran aspertzen semetxoa eman zielako, ta beren ezagueraren agiritzat, Beroni eskeñi zioten.

Bazakiten gañera guraso on aiek, beren gain zeukaten eginkizuna semea ondo azitzea zala, ta onexegatik arazorik aundiena, Jaungoikoaren bildur santuan eta fedeko egietan, beren semea ezitzea izan zan.

Andre Teresak, batez ere, sartuerazo zuan poliki poliki Ebanjelioko ikaskizunen intz gozoa beren semearen adimen bigunean, eta onen biotza Kristorenaren eredura eratu zuan. Gauza aundiak egin zituzten aurrekoen alaba izanik, bere lenengo semearen zeinkia eratzen joan zan, egintza aundik zekarten goraspen ta zuzentasuna erakutsiaz, gurasoak semeai utzi lezaioteken gauzarik edereña au zala baze-kien-da.

Gure Santua Jaungoikoari eskeindua bezela, baita eskeindua izan zan Ama Mariari ere. Bere oneraspena zan Andra Teresa'rentzat gauzik zoragarriena, ta bere semearen oneraspena aundia ta kidegabea izatea nai izan zuan. Geroago bere seme-txoari, artean izketako gauza etzala, Maria'ren izen guztiz gozoa toteltzen erakutsi zion, eta azitxoa zanean, Ama Maria goraltzeko geiena ezagutzen dan ereserki au «¡O gloriosa Domina!» amak eta semeak abesten zaten.

Eguzkiaren berotasunak landareak ernatu ta azitzen dituan bezela, eguzki eran autua izan dan Emakume Maria'ren bitartez, ernatu ta azitzen ziran Fernandoren biotzean onoimen guztiak. Bost urte zituan, Maria'ren irudi eder baten aurrean, bere gurasoak ariturik uzten zituela, garbitasunaren eskañitza (botua) egin zuanean.

Fernando umea azitzen dijoa, ta ikastetxera eramateko garaia du. Aldi artan sendirik aberatsenak eta berezienak, elizak eta komentuak zeuzka-

ten ikastetxetara bialtzen zituzten beren semeak, bestelakoak utzita. Lisboa'ko eliz-nagusiak oietako bat irekirik zeukan, eta an apaiz-gai gazteak ezitzen ziran, aldi berean jakintza ta onoimenak erakutsiaz.

Amar urtekin asi zituan bere ikasketak ikastetxe onetan, eta an igaro zituan bost urtietan, etzekiten bere irakaslariak nola goratu bere zintzotasun, adore ta auferapen azkara. Bere aldetik zorionekotzat zeukan Fernandok apaizai meza santua laguntzea, ta beste ikasle-lagunakin *koruan* Jaungoikoari goraltzak abestea.

Aldi onetan gertatu zan bere bizitzan edesten duten lenengo miraria. Egun batean belauniko zegoan, adore aundiz otoi-egiñaz, Ama Jasokundearen aldare aurrean. Bat-batean agertzen zaio diabrua, onoimenen bidetik atzeratu nairik, maltzur eta zemagari. Bere aurrean gaztea bildurturik, oroitu zan Gurutzearen ziñaleak zer indar zuan, eta gero ezari zuan *ari-marmolaren* gañean. Une berean bigundu zan aña beatz garbi ta guri arek ikututa, ta betiko an gelditu zan. Oraindik ere agiri dago Gurutze miragari au, ta bidazliak atsegin izaten dute berari mun-egiten Santuaren lenengo mirariaren oroipenean.


Zirikaldi au zala-ta, asi zan ikasle gaztea egiazko oarpenak egiten, alegia bizitza au labura zala-ta, uskeriak gizonen aunditasuna-ta, bere gogoak, Jaungoikoaren goi-argiz argitua, egi betikoak daramaten dizdiraz, artu zuan asmo sendo ta irme bat lekaide (erlijioso) egiteko.

1210'gañen urtean gertatu zan au, Fernando'k amabost urte zituan garaian, amets-zoroak egin eta itxaropen aundiak artzen diranean; baña bera gertu

zegoan dienak uzteko, gogor egingo zitzaiola bazekian ere, *familiko* ta adizkidien korapilua autsi, ta munduaren palakoai agur egitea.

Alaxe, guztia Jaungoikoaren maitetasunez ukatu zuan, eta Bizente donearen komentura bere oñak zuzendurik, an artua izateko atsegiñak bere biotza bete zion. Etxeko Buruak beratasun aundiz ateak zabaldu zizkion, eta Agustin donearen janzkia emanik, Fernando'k oneraspen eta apaldasun guztiaz jantzi zuan. Pozez zorutzen zegoan bere anima, Ebanjelioko bizikera ona egiteko bidean ikusten zalako, ta etzan Jaungoikoa goraltzen aspertzen, zeruko gelaurean jañi zualako.

Au dala-ta Jaungoikoak egin dion deiaren grazi au, bera dan bezela, Fernando'k ezagutzen du, ta alegiñak egingo ditu, areta guztiz eta edozein eratarra, bere zintzotasuna agertzeko. Bizente donearen komentu au, Lisboa'tik uré samar zegoan, eta lekaide gaztea geiegi ikustatzen zuten lengo adizkideak, on-onean, estalgiz, andik ateratzeko asmoz. Fernando'ren biotzean etzuten lekurik arkitzen aien adibide guztiak, eta kementsu aspiratzen zituan; baña etzitzaion aztutzen adiskidetasun eta senidien palakoen indaiez, azkenian ere biotza lotu egiten dala. Bere deiaren gordalua galtzeko ariskuan ez jartzearen, andik aldentzea erabaki zuan, urutiko komentu bakar batean bere burua eskutatuz. Santuak Nagusiari bere asmoak agerturik, Nagusiak ezezkoa eman zion, etzala bere mendetik aterako; baña Fernando'ren eskari ta negararikatik biotza bigundurik, eta bere asmoak etzerala nolanaikoak eta bidegabeak etsita, baiezkoa eman zion, eta Coimbra'ko Gurutze Santuaren komentura geroago aldatu zan. Komentu onetan, emengo bakartaldia ta pakea-



...Baña komentuetan ez da bakarik...

ren gozotasun esan-eziñak artzera emana egoten zan. Kanpai soñua entzutean (eta beretzat Jaungoikoaren deia zan) esagiña zanez, deitzen zioten lekura joaten zan; *koruan* ereski abeskerak (salmuak) abesten izaten zan bere atsegiña; baratza bere edertasunakin guztiz gogokoa zitzaion; Kristoren Gurutze ta ilduran bilatzen zuan gloria guztia, lastasunaren antza zuanik etzuan uzten: azkenik otoitza ta Jaungoikoarekin jardun luzeak izaten ziran bere Ontasunez liluraturik, Goreneko Egileari zuzentzen zizkion ezagueraren goraltza bero-beroak eta maitatiak; esan ziteken luñean bizirik, bere jarduera Zeruan zegola.

Baña komentuetan ez da bakañik ontasuna agertzen, jakintzak ere argi egiten du bere goitasun guztiarekin, komentu artan batez ere: an eliz-ikasketak ondo baño obeto egiten ziran, Ramon eta Joan jaunen bidez, Parisko ikastetxe-nagusiko irakaslariak biok: onela ondo bete zezaken gure Santuak bere gogoa ta eliz-jakintzetako griña, ta atzalduriazadiak eman zion adimen aundia ta gogamen ari-garia. Bere adimena arin eta egan bezela joaten zan goi-ikusaldietara, bere-gogamenak eñaz eta naste-gabe ikasten zituan jakintza guztien gordailuak; «irakurtzen zuan guztia buruz gelditzen zitzaion» Pekan bere edeslariak esaten digu. Bere ikasketa guztietatik onoimen eta santutasunerako bideak artzen zituan; bada jakintzak onbidetik aldendu zezakelarik, geiago batutzen zuten Jaungoikoarekin, idazti doneak dioten bezela, Bera da jakintzaren Jauna. Zortzi urte igaro zituan ikasketa oetan Fernando'k, eta bere irakaslariak ezin agertu gabe utzi izan dute, ikasle gazteaz zuten iritzia, bere auñerapenak alaxekoak ziran, ta idatzirik laja izan digute

agiri ziñaltz au: «Fernando gizon ospetsua zan, jakintsua, lekaide bat donetasun goienetakoa». Bere irakaslarien itz oek agertzen dizkigute, gure Santua apaintzen zuten tasun ederak, eta erakusten digute gañera, apaiz mañarako zituan erarik obeenak.

Alaxe da. Lekaideburuak gaztigatu zion Fernando jaunari, apaiz mañara igotzeko eratu zedila. ¡Zer animako garbitasunakin, zer oneraspenakin, zer maitetasunakin esango zituan Obispoakin batean, Jesukristo gure Jaunaren Gorputz eta Odola *Konsagratzeko* itzak! 1219'gañen urtean apaiz egiña ikusten degu. Sakramentuaren grazia lur emakor batera bezela etoñi zan bere biotzera, ta onura ugariak emango ditu bere bizitzak dirauen artean. *Hostia* Donearen ukitzez bere fedeak argitasun beriak artu zituan, biziago geitu zan bere maitetasunaren sua, bere onoimen guztiak ditzikoñagoak ziran, ta azkenik bere burugañean asi zan Miragilearen goñituna ditz-egiten.

Antziñako edeslariak Santuak aldi onetan egingdako mirariak edesten dizkigute. Egun batean esku lan batean ari zala, mezaerdiko kanpaia entzun zuan; berealaxe belauniko jañi zan Sakramentu goragañia gur-egiteko; ¡baña o miraria! elizako ormak irekita, Fernando jaunak ikusi al izan zuan *Hostia* Donea apaizaren eskuetan. Beste batean gaxozai egon beaia izan zuan, ta gaxoaren oñaze ta miñaz kupiturik, bere gañekoaz estaltzez sendatu zuan.

II

*Prantzisko'tar bost martiriak.—Antonio doneak
martiri izan nai du.—Prantzisko donearen
Ordenan sartzen da.*

Artean urte gutxi zeramazkielarik, Prantzisko donearen Ordena ospetsua egin zan: eridiz eridi zabaltzen zijoan. Aita-len Serafindar berak eragin zituan España'n komentu batzuek. España'tik Portugal urean egiten da, ta emen Zakarias anai dontsuak eta beste bi anaiek eragin zituzten, lenengo, 1216' gañen urtean, Alanquer'ko komentua, ta luzaro baño len Antonio Abadiarena Olivares urian, Coimbra ondoan.

Olivares'ko komentuko praileak sañi joaten ziran ukar (limosna) eske *Santa Cruz'ko* Agustin'dařetara, ta eratasun eta apaldasunagatik laister bereganatu zuten Kanonigo aien oneraspena. Fernando jaunak Prantzisko donearen ikasleak lenengo aldiz ikusi zituanean, ariturik geratu zan, Jaungoikoaren maite-tasunak zer indar izan al zezaken beragatik gauza guztiak utzitzeko gogoratuta. Andik laister oetako praile bat, Olivares'ko komentuan il zan, eta il zanaren anima argiz inguratua zerura igotzen ikusi zuan. Au guztia Prantzisko'ren Ordena maiteago izateko izan zan, bere biotzean biztutzen zitzaiola Asis'ko Serafiñaren semien artean bizi izateko naikia.

Gertaera ospetsu-ospetsu batek bestelatu zuan



...azken agurá egiteko...

naiki ura asmo sendoetan; 1219'gafen urte inguru zala, Prantzisko'ren bost praĩle eldu ziran Portugalera, emendik España'n, maurutañak orduan zituzten luñaldietara igaro ziran eta gero Mañukuetara. An martirien burestuna artu zuten. Ur̃engo urtean (1220) mirari asko ta añañiak egiten zituztela, martirien Gorputz oek aldatuak izan ziran Coimbra'ra ta jañiak *Santa Cruz* komentuko elizan bertan.

Fernando jaunak bost Prantzisko'tar oen *martirioaren* zeatzak jakin zituanean, eta beren gorpuzkiak gur-egiteko ekañiak beren elizan ikusita, bere biotzean Jesukristoren gudari kementsu aiek antzeztu, ta Maixu-Jaungoiairen aintzagatik bere odola ixurtzeko naiki sutsuak artu zituan. Gogorapen auetzuan iñoiz lajatzan, eta bere arteko esaten zuan: «Martiri oen garaipenaren jabe egin al baniteke ¡O Jaungoikoak naiñizango balu, Kristoren maitetasunez, nere burua Mahoma'taen aizkorapean ematea!» Bere otoitzak eta ildura geiago izaten ziran, Jaunak bere naia ezagutzera eman eta onetarako bidean jañizezan. Gogapen oen Goiargile Espiritu Santuak ontzat artzen zituan bere iraupena emanaz, eta edeslari batzuek diotenez, Italia'n bizi zan, Asis'ko Prantzisko bera, mirariz atzaldu zitzaion, zeruko naikiak jañaitzeko esanaz.

Zalantz oek guztiak atzera utzita, astirik galdugabe, gure Santua bere Nagusiaren bila joan zan, eta Nagusiari agertu zizkan biotzean zebilzkien naiki sutsuak. Agerpen onek beingoz min eman zion Nagusiari, bada ark bezela, beste gañerako lekaideak ere, maite-maite zuten Fernando, bere ontasun ta jakintzak agertzen zituan tasun ederañatik, eta Ordenako aintza bailitzan begiratzen zioten. Ala ta

guztiz ere, Nagusiak Jaungoikoaren asmoen aurka joango zan bildurez, utzi egin zion Jaungoikoaren deia jaraitzeko; baña baldintza au jarita, janzki beñiaren añera *Santa Cruz* komentuan izan bear zuela.

Fernando jauna berealaxe Prantzisko'tar prailietara aldatu zan bere erabakien beñi ematera, beste gauzen artean esanaz: «Anai maite-maiteak nere animako adore guztiakin zuen Ordenako janzkia artzea da nere asmo guztia; baña zuek itz-eman bear didazute, janzki au artuta gero *Sañazenoen* luñalde-tara bialduko nazutela, nere odola Martirien odolarekin nastu dezadan, eta artu aiek artu zuten burestuna (koroia)». Prantzisko'ren semeak pozez beterik agindu onekin, Jaungoikoari eskeñak emanda, erabaki zuten uringo egunean, *Santa Cruz* komentuan beren Ordenako janzkia jantziko ziotela.

Alaxe gertatu zan, esandako egunean, Fernando'k Lekaide kanonigoen janzkia, San Prantzisko'ren oial latzean aldatuaz. Elizkizunaren ondoren eskeñak eman zizkan Nagusiari ta beste kanonigoai, etxe artan bizi izan zan bitartean egin zizkaten mesedekatik. Kanonigoak ezin legoñik euki zituzten begiak, azken agurá egiteko laztandu zutenean. Lekaide oetatik izan zan bat ordea, bere erabakia ondo eraman etzuená, ta par antzean esan zion: «Zoaz, zoaz, agian Santu bat izango zera-ta». Prantzisko'ren ikasle apalak erantzun zion. «Santutegian izendatua naizala jakiten dezunean, beragatik Jauna ziurki goralduko dezu».

Fernando jauna Olivares'ko komentu txikian, 1220'ngo. Uztailan, gutxi gorabera, sartu zan, 25 urte zituan garaian, eta Antonio izena artu zuan. Prantzisko'tar beñi onak lenengotik Araudia (Eregla)

ta artu zuan Ordenako egikintzak ikasten igaro zuan denbora. Prantzisko'taŕen izakera ikasita, ildura ta otoitzaz Espiritu Donearen argitasunak eskaturik, Maŕuketara aldatzia iritxi zuan, bere anai *Martirien* eginkizun bera jaŕaitzeko.

III

Antonio donea Marukuetara abiatzen da.—Batzar Nagusira dijoa.—Monte Paulo'n.

Sukatiluan garbitzen da uírea, agerkaietan garbi-
agotu ta aztertzen da onoimena. Antonio anaiarena
guztiz garai izan bear zuan, eta augatik beárezkoa
zan agerkai ta eragozpen askotara emana egotea.

Antonio, jatoriz Castilla'koa ta onoimen aundi-
koa zan Felipe anaiarekin, Africa'ko bidean jaíri zan,
eta ango itxas-basteak lenengo aldiz ikusi zitua-
nean, bere baíuan ezin esan alako poza nabaritu
zuan. Bere apostolu-ardurak eta maitetasun sutsuak
itxaropen aundiak ematen ziozkaten, eta zenbat eta
uíerago maurutaíren luíaldetik, biziagoak ziran itxa-
ropen oek. Fede *katolikoa* zabaltzea, Jaungoikoaren
maitetasunean biotz aiek sututzea, Kristorentzat ira-
bazi ta lenengo kristau-eírietako fedea beíritu zedin,
azkenik bere bost anai Martiriak bezela, Fedearen
ziñaltzaz bere odola ixurtzea, au zan Antonio'ren
goranai guztia. Baña Jaungoikoaren asmoak beste-
lakoak ziran, naiz Antonio'renak on-onak izan.
Ez da bera izango *Mezquiten plaza* auíean mauru-
taíai Jaungoikoaren itza adierazoko diena, ez ta
fedegabekoen eskuetan eraildua izango dana ere:
martirien *palma* bestientzat dago, beretzat gogonke-
taren burestuna (koroia) izango da.

Africa'ko lur legoíean bere oñak jaíri bezin laister,
sueri (kalentura) gogor batek artu zuan, eta eman

zitzaizkan sendakaiak eta berekin euki ziran ařetak utsak izan ziran. Bere lagun Felipe anaiak gaztigatu zien Nagusiai, nola arkitzen zan Antonio anaia, eta oek bereala España'ra etortzeko agindu zuten; baña Jaungoikoak bere naimena egingo zuan lekura deitzen zion.

Gaxoa zekařen itxas-ontzia luřaldi oetara zetorela, ekaitz izugarı batek artuta, Sicilia'ko itxas-ertzetara eraman zuan. Taormida'n luřa jo zutenean, Mesina'n Prantzisko'tařak zuten komentura bereala artu zuten. Etzuan iñoiz gogoan erabili Jaungoikoaren mirabe onek Italia'ra joaterik; baña ara eraman zuan Jaungoikoaren Arduratasunak. Galduak daude bada Antonio'ren asmoak, zimelduak bere itxaropenaren loreak. Bere gogonketa ez da izango fedegabekoen artean. Auřesketa aundia izan zan au; baña Antonio anaiak ondo ta pozik eramango du, Jaungoikoak ala nai izan duan ezkerro. Onela agertu zuan bere onoimenaren beta ona.

Komentu ontan igaro zituan bi ilabetietan Antonio'k galdutako indařak eta osasuna bereganatu zituan. Ontan, 1221-ngo. Maiatzaren 30-an, Portziunkulan egin bear zan Batzar Nagusirako deia etoři zan, eta Antonio anaia, Felipe anaia lagun zuela, Batzařerako bidean jaři zan. Batzar au iñoiz ikusi ez bezelakoa zan: bi milā praile ta geiago etoři ziran alde guztietatik Aingeruetako Andre Mari'ra, Capucci'tar Rainero kardenalaren agindupean jartzen zirala. Guztien artean, Aita-len Serafindařa geiena banaitzen zan, bai bere onoimenakatik bai bere nagusitasunagatik. Ezin aspertu zan Antonio bere Aitari begira, ikusirik ain argala ta argia, ta bere apaldasunak, ardura ta maitetasunak dizegiten zutela.



...baña agudo bere biotza sutu zan...

Bilera agurgari artan Antonio'k bere jauntzale-
tasunaren kidera, ta on ona izateko zeuzkan naikien
neufira guztia arkitzen zuan. Pozez eta atsegiñez
beterik zegoan, Jesukristoren alde beren odola ixur-
tzeko eratuta zeuden apostolu-talde bulartsu aiei
begira; bada Prantzisko doneak, Alemania'ko *misio-
etzaz* itz-egin zuanean, larogei praile, inork beartu-
gabe, ara joan naian aurkeztu ziran, beren odola
ixurtzeko bailitzan. Au dala-ta, biotz-biotzez, goral-
du zituan Jaungoikoa ta Aingeruen *Eregiña*, Eliza-
ren alde ain arduratsu bialdu zuan gudaritzara
deitua izan zalako. Jaungoikoaren mirabe aien la-
gunkidan egoteko lain etzalako ustez, beti azkena
jartzen zan ixil-ixilik, eta etzan beretzaz inortxo ere
oroitzen. Prantzisko doneak berezi zituan nagusi izan
bear zutenak, izendatu zituan beren bizilekuak, eta
agindu nork nora joan bear zuan. ¡Antonio anaia
aztua izan zan! ospetsuen ospetsuena izan bear
zuan gazte ura, bakañik geratu zan apostolu-talde
aundiaren artean. ¡Etzan esaguna! Agerkai izugaria
izan zan au. Antonio'ren apaldasuna bezin sendoa
izan ezik, edozeñena arisku aundian ibiliko zan.

Artean bera ixilik zegoan, Grazian anaia, Bolo-
nia'ko erkiburua, uferatu zitzaion bitartean: onek
apaiza al zan galdetu zion. Baietz ba erantzun zion
gure Santuak: orduan Ordenako Buruagandik iritxi
zuan Grazian anaiak, bere erkira eramateko baime-
na, Rumania'n, Forli ondoan, zuten Monte-Paulo
komentu bakartian, meza santua eman zezan.

Urte bat ingurutxu igaro zuan komentu onetan
munduak ezagutu gabe, ta bere anaiak berak aztua
zeukatela. Bakarti onetan bilatu zuan arkaitz-zulo
bat, eta arkaitz-zulo onetan igarotzen zuan denborik
geiena, beste jan-edanik gabe, ogi pizka bat eta ura

baizik, ildurarik gogořenetan, otoitzean, eta idazti santuak irakurtzera emana: zorientzat zeukan ze-ruak eman zizkan jakintza ta mesedeak bakartasu- nean ezkutatu al izatea, ta bere burua ilduraren artean erabili, *martiri* izateak iges-egin zion ezker.

IV

Antonio donearen jakintzaren agerpena.—Bere gogonketa asten du.—Jakintsua.—Vercelli'n.—Ila piztua.

Baña Jaungoikoaren orduak jo du, Antonio'k arkaitz tartean ezkutaturik zeukan santutasuna ta jakintzaren mirariak ezagutzera emateko. 1222'ngo. Epailaren 19'an. garizumako *Tempora*'tan, Domingo'tar eta Prantzisko'tar batzuek Forli'ra eldu ziran *Ordendu* egin bear zutela-ta. Baita ara etori zan ere, Bolonia'ko Erki-burua Grazian, Antonio anaia lagun zuela. Obispo Jaunak eskatu zion esandako Erki-buruari, a'ren, oitura zanez, itzaldi bat egin zezala, Orden gurgaria goraldiaz; baña onek ederki Domingo donearen semien esku utzi zuan. Oek ordea, eratugabe zeudela-ta, *pulpitora* igotzeko ausardirik etzuten izan elizkizun goragari artan. Orduan Grazian anaia zuzentzen da bere bide lagun Antonio anaiarengana, ta agintzen dio, *Ordendu* bear zutenai, itzalditxo bat ona ta tolesgabea egin zezaiela. Antonio anaia esagiña zanez artara jafi zan, eta Paulo apostoluaren itzak buru arturik: «Kristo esagiña izan zan eriotz arte, ta Gurutzeko eriotz arte» atzaldu zuan elizako apaiz gaien begien a'fean, beren buruak ukatzeko eredu on-ona, ta apaiz batek izan bear zuan guztia, Apaiz Betiko'ra, ezin ohea, Jesukristo zala.

Au'fenetik bildur antzean asi zan eta azal xamaretik; baña agudo bere biotza sutu zan, eta bere itzak gero ta beroagoak eta ditziko'ragoak ziran.

Bere gorputza barauak eta, argaldua, bereala indartu zan, bere arpegiak besterik zirudin, bere besoen ibilera ekarkoragoa ta edera zan, eta onetzaz gañera bere aditzale guztien adimen ta biotzak donbidera (Jaungoikoaren bidera) zeramazkien. An zauden guztiak, bai Obispo Jauna, bai Domingo ta Prantzisko'tarak, dienak ariturik, Igarle baten abotsa entzuten zeudela uste zuten, eta biotza bera bera egiñik, mara mara negaiez zeuden. Orduan ezagutu zuten bere anaiak, apaldasunaren mirariz ezkututzen zala, egun ura arte, Ordenaren baruan zeukaten gordairua. Grazian anaiak berealaxe gaztigatu zion Prantzisko doneari, zer gertatzen zan Antonio anaiarekin. Aita-len Serafindarak atsegintsu artu zuan beñi au, eta etzuan utzi ainbat balio zuan anaia, Antonio zanez, geiago ezkutuan egoten, ta gogonketara (predikatzera) atera zuan. Gure Santuak bere gogonketak, 1222'an, 27 urte zituanean asi zituan, Rumania ta Lombardia'ko uriak igaroaz, onoimen eta damu bidietan onura aundiak ateratzen zituala, ta alako eran zigortu ta apaleztu zituan fedegabeak, onexegatik deitu zitzaion: «Herejien Malua».

Baña Antonio'k ez du Ebanjelioa bakarik adieratziko; baita bera izango da ere bere anaien erakuslea, ta izkintzaldietarako eratuko dituana. 1223'gañen urtean, Aita-len Serafindararen idazkia artu zuan: «Nere anai Antonio maite-maiteari, Prantzisko anaiak: Kristogan agur. Atsegin det zuk gure prailiei *Teologia* donea erakustea; baño ez zukan, ez eta bestientan ez bedi (ta au garaitsu nai det) otoitz donearen eta oneraspenaren gogoa itzali, Araudian agindu genuan bezela. Agur».

Antonio Bolonia'ra dijoa *Teologia* irakasteko asmoz, eta Prantzisko donearen onuak (konsejuak)

jañaituaz, bere irakaskintza onbidietarako irakastola egiten du; bada ezaguerako bide guztiak maitetasunera eramán nai ditu. Antonio'ren lagun aundia zan Vercelli'ko *Abadiak* esango digu Santuaren ikaskizunak nolakoak ziran. «Antonio, dio Abade onek, egiz oi-ez-bezelako gizona zan, maitetasuna zerion biotz garbikoa; onetzaz ondo esan ziteken Joan Bataiatzale doneaz esaten zana: «Argi bat zala» argitu ta irazekitzen zuana. Bañendik Jaungoikoaren gizon au maitetasunez irazekia zegoan, eta azaletik aingeruen berotasunaren gañak botatzen zituan». Ezin zenbatu ala gazte bere anaietakoak eta anaiak etziranak inguratzen zuten bere irakastola, bere itz beroaren burni biziak ekañiak.

1224'an Antonio'k uzten du oraingo z bere irakaspéna garizumako itzaldia z Vercelli-urian egiteko, ta ikustatu bere lagun ango abadia. Eusebio donearen elizan, neuri gabeko jendea egunero batutzen zan apostolu-prantziskotañaren itzaldia z entzun naian. Goikuak asko egiten zuan sinisle aietan; baña uste gabeko mirari batek eman zion burua bere itzaldien onurari. Goiz batean Antonio itzaldia egiten ari zala, sendiaren maitetasuna ta itxaropen guztia zan gazte il beñi bat eramán zuten elizara iñletak egiteko. Gure Santuak oso biotz-beratua gorputz iñlotzari lagun egiten zioten naigabe ta negañetzaz, uzten du bere itzaldia otoi-egiteko. Gero asten da izketan eta ilda koari esaten dio: «Jesukristo'ren izenean jaiki ari gazte». Miragilearen abotsaren indañez, astintzen du bere gorputza, jaikitzen da, ta bere gurasoetara dijoa; eta gurasoak dienak añiturik, besoak zabalik artzen dute, Jaungoikoa goraltzen aspertzen etzan gendearen artean, Antonio'ren bidez egiten zituan mirariakatik.

V

Antonio donea Frantzia'n.—Montpeller'en biztanle.
— Alelluya.— Eresi-liburuaren lapurketa. — Tolo-
sa'n.—Maria'ren Jasokundea.—Puy'ko Guardian.
—Barataria (Eskibaua) Martiri.

Amairugaŕen gizaldiaren asieratik Albitar siñaus-
teak (herejiak) kalte aundiak egiten zituan, Frantzi
erdi-aldean, eŕi aietako fede ta oitura onetan. Prant-
zisko donea gerkai guztiei begiratzen zielarik, etzi-
teken esku lotuakin egon, Elizaren eta animen aurka
egiten ziran kalteak ikusita. Au dala-ta erabaki zuan
Bolonia'ko Irakaslaria, Antonio anaia, ara bialtzea,
siñauslien ugolde izugaŕiei eragozpen bat jaŕi zezan,
eta agindu zion, aldi berean, eŕi aietan gure Ordena
zabaldu zezala. Antonio beti esagiña, Bolonia'tik
1224'ngo. ikastaroan berealaxe aterata Frantzia'n
sartu zan iñortxo ere an ezagutu gabe, santutasun
ta mirariak egiteko doaia berekin eramana.

Montpeller uria zan Santuak lenengo artu zuan
bizilekua, ta eratasun aundikoa bazan ere, laister
jendearen begiak bereganatu zituan. Uri ontan asi
zituan bere gogonketak, bere inguruko eŕietan jaŕa-
ituaz, eta alde guztietan fedegabekoen eta oitura
gaiztoen aurka itz egiten zuan. Beste aldi batean
Apostoluak bialdu zituan Jaun Berak eman zion
Antonio'ren itzari mirari aundiak egiteko indaŕa, ta
mirari oek zirala-ta fedegabeak biurtzen ziran Ama-
Elizagana, ta oitura onetara.

1225' - ngo. Pasko egunez, Montpeller'ko eliz-nagusian bere itzaldia egiten ari zala, oroitu zan non-bait, Alelluya abesteko agindua zegola, ordu berean meza abesten ari ziran bere komentuko elizan, eta aztu egin zitzaion. Audala-ta naigabetua arkitzen zan utsegite onegatik: utzi zion itzaldiari, bere burua jañi zuan *pulpitoaren* ertzean, eta alaxe egon zan aldi batean, Obispoa ta entzuleak ariturik zeudela. Guztiak uste zuten ondo ezen bat egin zitzaiola, edo galduta zegola. Baña etzan olakorik. Une berean, Antonio Alelluya abesten egon zan komentuko koruan. Bere agindua bete zuanean, asi zan *pulpitoan* mobitzen, eta jaikita jañaitu zuan bere itzaldia.

Montpeller'en egon zan arte erakutsi zien ere praileai *Teolojia*, bere irakaskizunen onura *Salmoen* atzalburua izanik. *Salmoen* Atzalburu au mirariz onez aterea da. Prailegai bat komentuko bizikeraz aspertuta, Atzalburua lapurturik iges-egin zuan. Eskuidatzi onek Antoniori atsekabe aundia eman zion, eta eskaka ari zan Jaunari, añen idazti ori biurtu zezaiolo. Lapuñá uruti zegoan uritik, eta ibai bat igarotzerakoan, gizon antzeko ikusgai bat agertu zitzaion, erailtzeko zematuz, baldin Atzalburua biurtzen ez bazuan. Bilduñez prailegai au, eta dana nastua, komentura abiatu zan, Santuari bere pekatua aitortu zion, eta bere eskuetan jañi zuan ain maite zuan Atzalburua.

Kristau oen oiturak zein ondo zijoazen ikusita gero, 1225'gañen urteko Pentekostes Batzar ondoren, Antonio Tolosa'ra jo zuan, Manes'tar garailienak an zeudela-ta. Emen aldeztu zuan bere itzaldi bikañakin Jesukristoren Jaungoikotasuna, egiazko Jaungoikoa ta egiazko Gizona zanez, gaudi guztiaren gurgari aurkeztuaz.

Jesukristori zor zaion aintzaren (gloriaren) ardu-ra-zalea ta maitalea izanik, beartua egon bear zuan ere, Ama Mariaren aunditasunak goraltzeko. Mariak bere aldetik onez artzen du Santuaren gizapidea. Bere Jasokunde egunean, Usuard'eren *Martirologia* irakurtzen zan koruan. Idazti onetan zalantzan jartzzen zan, Ama Maria gorputz eta anima zerura joana zan edo ez. Irakurpen au Santuak Jaungoikoaren Amari zion fede ta oneraspenaren kontra zijoan, eta ala erabaki zuan bere gelan geratuta ez korura joatea. Baña bañuak min-ematen zion korura ez joate orék, ain begiratua zan bere eginkizunetan, eta Ama Maria bera agertu zitzaion ditzidura aundi batekin, eta bere bañua lasai jañi zuan, esaten ziola: «Ene seme, ziur egon zaite, Jaungoiko-Gizonaren kutxa bizia izan zan Gorputz au, etzala usteldua izan. Jakin zazu ere, irugaf'en egunean, aingeruak Jaungoiko-Semearen eskuialdera eramana izan zala: antxe daukat nere jargoia. Ikuskari ain pozkañi onek Antonio esan-eziñeko gozotasunez beterik utzi zuan. Gure Santuak iru ilābete, gutxi gora bera, igaro zituan Tolosa'n, eta denbora gutxian egon da ere, fedegabeak, Manes'tařen buruak eta guzti, dienak Eliza-katolikuaren bañutian sartu ziran.

1225'gařen Agořean, Antonio Puy'ko Guardiano izendatua izan zan, artean ogeitamar urte baño geia-go etzitualarik. Bere agintzaldia gozoa ta zuzentasunez betea izan zan; aokaldietan (exhortasioetan) onerako bideak ematen zituan, eta bere itzak, ikas-bideak eta betiko jardunak bazkun guztia indartzen zutela, praile-bizikera on-ona eramana zien.

Izkintzari ta Miragile ospetsuaren izanerakin zetořen aurretik uri onetara, ala etzuan indar aundirik egin beañik izan, bere biztalién biotzak irekitze-

ko. Emen siñausteak, bere burua zerbait jaso bazuan ere, etzuan kalte aundirik egin fede-gaietan; au dala-ta, bere itzaldiak geigo zuzendu ziran, biotzeko zauriak sendatzera, adimeneko ilundiak aientzera baño.

Uri onetan egin zuan miraririk ospetsuena au izan zan: Puy'n bizitza txarreko, ta galbideak ematen zituan *Eskribau* bat bizi zan, eta Antonio doneak arkitzen zuan guztian, burua makurtu ta belauniko itzalez jartzen zitzaion. Santuak egiten zizkan agur oek azalekoak eta isekak zirala uste zuan, eta bere bañenak etzuan ondo eramaten; onela ikusten zuan aldi guztietan jaraitzen zuela ikusirik, *Eskribauak* gogaituta gogorki asefe-egin zion. Baña Antoniok patxara guztian erantzun zion: «Jaungoikoak autua daukan gizon bat, bere izen santuari aintza emateko martirioaren bidez, zugan goraltzen det nik». *Eskribaua* burua dantzatuaz eta erdi pañez aldendu zan. Gero luzaro baño len Puy'ko Obispoak Sortaldira joatea erabaki zuan maurutañai fedea adierazteko, ta *Eskribaua* goi-argiz mugitua, Obispoarekin joan zan. Sortaldira eldu zanean etzuan bildurik izan, Mahoma'ñai Jesukristoren fedea erakusteko, Mahoma'ren gezurak oinperatzen zituala: au dala-ta fedegabe aiek oñazerik izugarienetan bizia kendu zioten. Bere azken asnasa eman baño len oroitu zan Antonio doneaz, eta Santua zala esan zuan, inguruko Kristauai edesturik nola iragañi zuan bere martirioa.

Beste aldi batean, bere itzaldia egiten ari zan bitartean, entzulien artetik zoro bat jaiki zan, dardaraz eta kañesi egiten zuala. Antoniok goxo-goxo esan zion ixildu zedila; baña zoroak erantzun zion, ezez, etzala ixilduko, alik eta bere geñian zeraman

kordoia ematen etzion arte. Santuak eman zion *kordoi* ori bada, ta ikutu zuan bezin laister sendatua geratu zan, entzule guztiak arituak uzten zituala.

Puy inguruko beste erietan ere egin zituan bere itzaldiak Santuak, mirari aundiak egiñaz; zenbatzea gaitz izango litzake. Brioude'n gañera Ordenako komentu bat eragiñazi zuan.

VI

Santua Bourges'en.—Entzuleak legoñean.—Jesus Eukaristia'n aldezten du.—Mandoaren miraria.—Prantzisko donea Arles'en.—Antonio Limoges luñaldeko komentuetan nagusi.—Mirariak.—Jesus Antonioren besoetan.—Diabrua aientzen du.

1226'gañen urtean Bourges'en arkitzen degu gure Santua Albi'taí siñausliei gogor egiten, eta egi betikoñak eñiari erakuzten. Urñla auñera zijoan, eun Obispo, Abade askorekin, Aita Santu-ordeko *kardenal de San Angel* buru zutela, Eliz-batzañean batu ziranean, eta kardenal onek Antoniori eman zion Batzar-auñeko itzaldia; Simeon de Sully, Bourges'ko artzobispoa, zalantzan zebilen fede-gaietan, artzaia zanez, bere eginkizunak aztutzen zituala, ta bere argaltasuna poz eta atsegiñarekin onartzen zuten fedegabekoak. Antoniok asi zuan bere itzaldia; baña laister utzi zion ariari, ta esandako artzobispoagana biurturik, esan zion: «Zuri mitra daramazun oñi, zuzentzen naiz» eta jañaitu zuan elizako buru baten biotza nasten duten galbide batzuen kaltez: baña ain adibide indartsuakin noski, pekatari zana, bere bide txañak ezagututa, damutua ta apalki jañi zan Antonioren oñetan, eta auñerontzean, Jaungoikoaren biotzak nai zuanez, artzai on bat izan zan.

Bourges'ko biztanleak gure Apostoluak egiten zituan itzaldiak entzuteko zaletasun aundia zuten. Elizetatik bat etzan bere bañuan entzule guztiak artu zezakenik, ainbat jende etortzen zan Santuaren


itza entzutera. Egun batean artzobispoak eta kanonigoak erabaki zuten, uri ondoko sandutegi batera elizkizunetan bezela jendea eramatea. Eguraldi ona zegoan, goialdeak argi ta garbi. Antonio ari baten gañera igota, bere itzaldia egiten asi zan; baña laister ilundu zuan goialde guztia, *trumoiak* eta tximistak baster dienak eramanean bear zituala, eta jendea etxeratzeke asi zan. Antoniok ordea bildur gabe ta ziur esan zien: «Egon, egon ikaratu gabe zuen lekuetan; ez bildurik izan, nik itz-ematzen dizutet, ez dala euri tanta bat ere zuen gañera eroriko. Euriak eta txingoak inguru guztia ondatua utzi zuan, ala ere, Santuak agindu bezela, entzule guztiak legoñean egon ziran. Mirari au dala-ta, eñi guztiak goraldtu zuan bere Jaungoikoa, ta agindu zuan Antonioren onu (konseju) guztiak jaraituko zituala.

*Eukaristia Eliza bat egiten duan gauza da, ta maitetasanean elkartzen gaituena. Or daukagu Jesukristo aurrean, Aldareko Sakramentu Santuan, bere azkengabeko maitetasuna gogora ekartzen digula, ta Elizaren ona beti zaituaz. Albi'taeren okerrik aundienetako bat, misterio gurgari au ukatzea zan. Antonio'k Jesukristoren siniskai batzuek eta bere eskubide orokorak aldeztu zitualarik, etzezaken aldeztu ta adierazo gabe utzi, Jesusen maitetasuna *Ekaristia'n*, eta baitetsi gure aldaretako Sakramentu agurgarian dagola.*

Egun batean, Santua, Guyard zeritzaion fedegabeko batekin ezdabaida zebilen gure fedegai onetzaz. Antonioren adibide indartsuakin etsirik, misterio onen egia aitortzera zijoan; baña oña or, bat batean iritziz aldatuta, Santuari esan zion: «Baldin zuk agertzen badidazu mirari baten bidez Jesukristoren Gorputza egiz *Eukaristia'n* dagola, utziko ditut nere

ikasti ta burubide txar guztiak, eta sinistuko det zure erakaspén guztietan. Antonio'k goi-argiz mugitua, baietz esan zion. Orduan fedegabeak jardetsi zuan: «Nik badet mando bat, eta mando au utziko det iru egunean janik eman gabe, gero eramango det *plazara*, ta zu etoñiko zera *Hostia*'rekin. Baldin manduak uzten badio janari, ta Sakramentuaren aúrean belaunikatzen bada, etsi ta sinistuko det». Santua aldendu zan iru egunak igaro arte: otoitzean eta ilduran jardunaz, igaro zituan iru egun oek, diabruak atzipetutako ainbat anima argitzeko, Jaungoikoak bere Guztialmena agertu zezan. Erabakitako eguna ta ordua eldu ziranean, jendeak laiste bete zuan *plaza* guztia, ta Guyard aurkeztu zan bere mandoarekin; gero baita Antonio ere etoñi zan *Hostia konsagrata*'rekin, eta mandoagana zuzendurik, onela itz-egin zion:

«Nere eskuetan, nik ontarako gauza ez naizen mirabe onek, daramakidan zure Egilearen izenean agintzen dizut ¡O abere adigabeak! bere aúrean apalki belaunikatu zaitezela, fedegabeak ezagutu dezaten, izaki guztiak Jaun Sakramentatu onen agindupean daudela». Aldi berean fedegabeak, oloa edo, goseak zegon abereari eskeintzen zion; baña ¡O miraria! Santuaren abotsaren indañez, aúreratu ta belaunikatu zan, janariari begiratu gabe, itzal guztiaz, *Eukaristia*'ren aúrean. Berebiziko txaloak ta poza agertu zituzten sinisleak, fedegabeak aldendu ta eskutatzen zirala. Guyard bere itzean egon zan, eta Jesus Sakramentatuaren aúrean gur-egiñik, Elizaren seme aitortu zan. Mirari onek burestundu zituan Antoniaren gogonketako nekeak luñaldi artan, eta artu zuan «Fedegabeen Malua'ren» izena. Bourges'ko biztanleak, mirari onen oroipenerako egin zuten eliz bat,



...auferatu ta belaunikatu zan...

eta eskeñi zioten Prantzisko'taíai etxe bat, komen-
tutzat izan zedin.

1226'gañen urtean gure Santua Arles urian arki-
tzen zan, Joan Bonelli buru zala, egiten zan erki-
batzañean (kapitulua). An batu ziran praile guztiak
Antonio'gana zuzendu ziran bere gogonketakatik
zorionak emateko; baña berak, beti apala zanez,
zorion guztiak Jaungoikoari eskeintzen ziozkan.
Agoñaren 14-an, Gurutze Santuaren eguna, Anto-
nio'ri itzaldi bat egiteko eskatu zioten bere anaiak.
Berai atsegin emateañen igo zan *pulpitora*, ta «Na-
zaretar Jesús, Judañen Eñegea» itzaldi-buru artuaz,
bera izketan jardun zan artean, Monaldo anaiari
Aita-len Serafindaña agertu zitzaion dizt-dizt egiten
zuala, izlari ta entzuleak oneztuaz, eta dienak une
artan, bañena guztiz indartua nabaritu zuten.

Gure Apostolua apaintzen zuten oi-ez bezelako
baiturak ikusita, Limoges'ko luñaldean ziran komen-
tuetako buru izendatu zuten erizkidetasun guztiakin,
aurez agindurik ordea, bañuan ondo baño obeto
bizi izaten erakusten zuan bitarte, inguruan bere
itzaldiak egin, eta Ordena zabaldu zezala.

Antonio Limoges'a joan zan eta ango biztanleak
garaipenez bailitzan artu zuten, bera ikusi, bera
entzun, eta bere soñekoen ertzak ikututzeko zale-
tuak zeuden-da.

San Jumien'en bere itzaldiak egiteko zegola, dia-
bruak zion bekaitzaz, *pulpittoa* eroriko zala iragañi
zuan; baña ez eztutzeko, etzala okeñik gertatuko-ta.
Alaxe *pulpittoa* goitik bera erori zan itzaldia asita-
koan, iñori kalte egin gabe.

Salignac'ko *komentuan* bizi ziran Benito'taíai
beren etxean oztalari artzez egin zioten mesedea,
mirari batez ordaindu zien. Ez egunez, ez gabez,



...Jesus-Aurtxoa gozagafi...

atsedenik ematen etzion garbitasunaren kaltezko zirikaldi batek zoraturik zekañen aietako bat. Aurkeztu zion bere bufukaldia Miragileari lekaide onek, eta Santuak bere barungo soñekoa jazteko eman zion, eta au jazteaz batera, betiko aienduta kendu zitzaion zirikaldi gaiztoa.

Prantzisko'tańak oso bere begikoak zituan andre ospetsu batek, erati batean eramán zizkien geroago jateko bear zituzten janari batzuek, eta uste bańo beranduago eldu zan bere etxera; au dala-ta bere senańak aseře bizian erazo zion andre gaxoari buruko ileak ateratzen zizkala. Andrea etzan eztutu, patxara guztian joan zan Antonio bere ongileagana, ta zeatz-zeatz esan zion zer gertatzen zitzaion. Santua otoi-egiten jańi zan, eta berealaxe beńitu zitzaion ilea bere senańa ańitzen zala, ta bere okeńaz damu izanik, emastearekin adiskidetu zan.

Beste andre bat Antonio doneak egin zuan itzaldi batetik etxera zetońela, etxera sartzerakoń bere seme txikia seaskan ilek arkitu zuan. Bere naigabe aundian esan zuan: «¿Zergatik eman bearko ez dit bizirik seme il au Santuak? Bere fedea pizturik Miragilearen bila joan zan, eta Santuari etzekien beste gauzarik esaten: «Nere semetxoa il da». «Zoaz, erantzun zion Santuak, Jaunak izango du eńukia zutzaz». Sinistu zuan emakumeak, eta etxera biurtu zanean, bizirik eta pańez arkitu zuan semetxoa.

Baldin Jesukristo'k agindu badu, bere izenean ematen dan ur otza ez dala sari gabe garatuko, nola sari gabe utziko ditu Antonio'k bere gogonketan agertzen dituan ardura ta nekeak? Egiz Jaungoikoaren ardurak beti eman izan dio ugari bear izan duana. Egun batean, gure Santua, oz-talari sartu zan Chateaunet gazteluan. Aundizki ba-

tena zan gaztelu au. Antonio aldendu zan esan zioten gelara, ta lotara baño len, oitura zuanez, otoi-egiten jañi zan. Animak zeruratzea, Elizaren garaipena, Jaungoikoaren aintza (gloria) ziran bere biotz - bañendik ateratzen ziran eskariak: bere bioztapadak lañiagoak ziran, bere animaren utsunak aundiagoak, eta Sarafindañen maitetasunak urtu ta ezereztuta bezela jartzen du, ta zeruko argitasunak artua dauka bere gela guztia... Kristo datorkio aingeruz ingurututa; Jesus-Aurtxoa gozagañi ta zoragañi jartzen da Antonio'ren besoetan... ¡O zer alkañizketak! ¡Zer zorionak!.. Ixilik bego mingaña, ta biotzak abestu bitza Jesusen goratasun ezin-atzalduek!

Baita Brive-uria ere gure Apostoluak Ebanjelioaren bidean sartua izan zan, eta komentu bat gañera an eragiñazi zuan. Uri onen inguruetan leize-zulo bakarti bat arkitu zuan, gogarketarako oso egokia, ta aldenduta askotan egoten zan otoitzaldiari ta ildurari emana. Emen diabrua, ezer egin ez balu bezela, Santuari bizia kentzeko jañi zan. Gau batean, bere lanak zirala-ta, oso nekatua, bakarti onetara aldendu zan, eta diabruak berealaxe lepotik eldu zion itotzeko zorian. Une artan deitu zion Ama Mariari ¡O gloriosa Dominal esanaz, eta berealaxe onez utzi zion *espíritu* gaiztoak: ain eragilea izan zan otoitz au.

Azkenik Apostoluak bukatu ditu bere gogonketak Franizia'n, an igaro ditu iru urte alde guztietan on egiñaz. Bere bizitzak dirauen artean Italia'n ibiliko da. Italia izango da auñerontzean bere gauza ariñarien eta garaipenen lekua.

VII

*Antonio donea Erroma'n.—Izkeren doaia.—Antonio
Bologna'ko erki-buru.—Araiei itzaldia.—*

Il bat piztua.

1227'ngo. garizumaren azken aldera, Aste Santuko elizkizunak egiteko eratzen ari zirela, eldu zan Antonio Erroma'ra. Erídi guztietatik zetoñen arótz oztea aundia zan, eta gure Santua gizonen artean nastua, etzan ezagutua izan, eta onela bete al izan zuan atsegiñez bere oneraspena. Ala ta guztiz ere, laister bereganau zituan bestien begiak, *Kapitolio'*an martiriak beren odolez luía busti zuten lekuan, otoi-egin eta luíari mun-egiten ikusi zutenean, eta ariturik galdetzen zuten, nor ote zan aingeru antzeko Praile ura.

IX-gařen Gregorioren izenarekin Aita Santu izatera etoñi beñia zan, Prantziskoren adiskide aundi, Ugolino kardenalak, etzuan bakañik maiteki artu gure Santua, baita Aste Santu artako itzaldiak ere egiteko agindu zion. Antonio'k apalki artu zuan Aita Santuaren agindua, ta egun aiek, gure Erospe-naren *misterioak* agertzen duten maitetasuna, arótz ozteari atzaltzen igaro zituan. Aundia izan zan, entzulien biotzetan egin zuan aldakuntza gure Santuaren itz beroak; baña Pasko eguna zan bere itzaldia silatu bear zuana urezko kakote diztiatzaleaz, gogora ekartzen zuala, Pentekostes goizean, Apostoluak afaltokitik irten ziranean, egiztu zan miraria.

Ezin zenbatu ala sinislek, erídi guztietakoak, in-

gururatzten zuten Antonio'ren *pulpitoa* Pasko Igande goizean. Gure Apostoluak, Jai-egun aundia zalako edo, badirudi bestietan baño *garbo* ta berotasun aundiagoz itz egiten zuala, eta mirari au egin zuan, bere izkeran jarduna'ren, garbi ta argi aditzen zioten guztiak, bakoitzari bere izkeran itz egingo bailitzan. Ez da nolanai esatekoa entzulien arteko a'ridura mirari onen a'urean, eta etzan gutxiago IX-ga'ren Gregorioren ustegabea, bada Idazti Santuetzaz zeukan jakintzaz a'riturik *Lege zar eta beriko kutxa* deitu zion.


E'roma'tik Asis'a aldatu zan, urte artako Maia-tzaren 30-an egin bear zan Batzar-oroko'rean bere burua aurkeztera. Emen artu zuan bere bizian artu zuan atsegi'nik aundiena, Portziunkula ta Prantzisko donea il zan gela ikustatu, Aita Serafinda'ren il-obian otoi-egin, eta bere gorputza gordetzen zuan a'ri otzari mun-egin z'ionean.

Batza'rean Bolc'nia'ko erki-buru izendatu zuten, eta zer esanik ez dago, bere bete-bea'ra a'reta aundiz egin zuala, o'regatik bere izkintzaldiak utzi gabe.

Bolonia'ko erkia zabala zan gure Santuarentzat, bai bere lu'aldeak aundiak ziralado, bai *Cataro'ta'ren* fedegabetasunak zain gogo'rak bota zitualako; bada Elizaren etsairik amo'ratuenak ziralarik, a'riskurik aundienean zeukaten gizartea. Prai'lien gauzak anto-laturik, be'riro mixiolarien Gurutzea artuta, zuzen zuzen Rimini'ra joan zan. Uri ontako fedegabeak guztiz ase're ja'ri ziran, aien bide oke'ren kontra Antonio'k atzaltzen zuan arduragatik, eta a'ria bezela gogortuak, etzuten entzun ere nai izan Santuak esaten zuanik. ¡Ajola gutxi Santuari! Jaungoiko'agan bere ustea ja'rita, deitzen dio itxas baste'ra e'riari, *Marecchia* deritzaion ibaia itxasoarekin batutzen

dan lekura, eta emen guztiak batu ziranean itz-egiten die aŕaiei abots betean:

«Ibaietako aŕaiak, itxas'oetako aŕaiak entzun. Zuei aditzera ematera nijoa Jaungoikoaren itza, fedegabeko oek entzun nai ez duten ezkerro». Bere abotsez berebiziko aŕai pila uŕeratu zan ibai ondora, leŕoka ederki jartzen zirala, txikiak aŕean, eta aundiak atzetik, dienak uretik buruak ateratzen zituztela, deitu zienari begira. Antonio'k bere biotza mugiturik, itz-egin zien entzule beŕi obeŕi, gogora ekartzen ziela beren Egileagandik artu zituzten ongiak. «Nere anaitxoak, esan zien, Jaungoikoak eman dizkizute itxaso ta ibai oek, gauza guztiak egin zitueanean onetsi ziñuzten, azi ta geitzen joan ziñezten; ugolde aundi artatik onez aterata bizirik geratuak zerate. Zuetako batek Jonas Igarlea onez bizirik ateratzeko omena izan zuan, Jaungoiko-Semeari bere zerga ordaintzeko dirua beste batek eman zion. Goralduta bada, ta onetsi gauza guztien artean oŕenbeste mesede egin izan dizuten Jauna». Itzaldi bitartean aŕaiak geldi-geldi egon ziran, eta Santuak bukatutakoan, pozez gora ta bera zebiltzan, eta onetsi zituanean, etoŕi bezela beren lekuetara biurtu ziran. Gero bat batean eŕiari begira jaŕirik esan zion: «Ikusi dezute zuen begiz, Jaungoikoaren itza adimendun gizonak ezertan artzen ez dutela, adigabeko aŕaiak nola begirunez artzen duten». Mirari au zalata, ezin gogor egin zezateken fedegabekoak, ta beren bide gaiztoak utzita, Santuagana joan ziran guztiz damutuak, negaŕez eskatuaz bere itza entzun, eta egi betikoŕetzaz argituak izan nai zutela. Antonio'k egun geiago igaro bear izan zituan Rimini'n fedegabeko auek ezaguera onera ekaŕi, ta Ama-Elizarekin adiskidetzeko.



...itz-egiten die afaiei...

Uri ontatik Aquilea, Goritzia, Gemona ta Conegliano urietara igaro zan Ebanjelioko egiak adierazteko asmoz sinisgaitz guztiei gogor egiñaz, onbidietara animak ekañiaz, eta Ordenako komentuak eragiñaz, leku obeagoa arkitu zezaten. Gemona'ko komentuaren iraspena ospetsua da, Antonio'k an egin zuan mirariagatik. Egun batean komentua egiteko gaiak eratzen ari zirela, aña ateratzen zuten añubi ondotik, gizon bat gurdia zijoala ikusi zuan, eta une baterako, añen, gurdia eman zezaiola eskatu zion. Mesedeak egiten, dirudinez, etzuan jakin gizonak, eta prailearen eskariari gezur batez erantzun zion. «Ezin nezaizuket lagundu, esan zion, gurdian il bat daramat-eta». Au entzun da, Antonio'k etzion ezer esan, eta alde egiñ zuan, gizon gizarajoa dana nastua, ezin esan alako naigabeakin arkitzen zan bitartean; bada gurdia biurtu zanean lotan utzi zuan bere semeagana, praileari ziria sartu ziola-ta iribaña egiteko asmoz, añiturik geratu zan. Deitu zion bein da beñiz bere semeari; baña semeak etzion erantzuten. ¡Ilda zegoan! Eskergaitzeko aita bildur-bildur, gurdia utzita, Antonio donearen oñetara joan zan, aitortu zion bere gezurra, ta eskatu zion, añen, aita-ta-semeaz eruki zedila. Kupitu zan Antonio, ta gurdia biurturik, ilaren gañera egin zuan Guru tzea, luzatu zion bere eskua seme ilari, ta bizirik jaso zuan.

1228'ngo. urtearen asieran Treviso ta Venecia'n bere itzaldiak egin zituan, gero ainbeste aldiz ikustea opa zuan Padua'ra joan zan, onela beterik Jaungoikoaren ardurak nai zuana, Berak nai zuan lekura zeramakien-da.

VIII

*Antonio donea Padua'n.—Mirari beñiak.—Lotazi-
lako (Abenduko) itzaldiak idazten ditu.*

Padua izango da gure Santua aunditasun eta garaipenen galur-galúera eramango duan uria, zorionekoena; bada bere gorputza gordetzen dualarik, lur gañean dan lekurik ospetsuenatako bat izango da.

Padua'rak ondo eratuak zeuden Antonio artzeko, batzuek lenago entzun ziotelako, ta besteak, geienak, bere izen ospetsua ezagutzen zutelako. Padua'ra eldu zanean garizuma úrean zegoan, eta ango obispoak orduko itzaldiak egiteko agindu zion, eta Santuak ezin zezaken utzi agindu au bete gabe. Emen etzuan siñauztearen kaltez itz-egin beñik izan, galbide askoren kontra baizik. Antonio apostolu bat bezela aurkeztu zan, Jaungoikoaren gloria-ren ardurak, eta animen onak biotza artua zeuketenda. Beste aldietan oi-ez bezela, gartsuago itz - egiten zuan, eta Jaungoikoaren eskubide ta lege santua aldezturik, infernuko sugařaz zematzen du, alargun eta umezurtzen aldetik dago, beartsu ta gizarteko buřuketan iltzen diranen eruki da. Padua'rak biotza bera-bera egiñik esaten zuten: «Au da Jaungoikoaren gizona, Goi-ardurak biali digun salbatzalea». Entzuz-
lien ozte aundiak bere bařuan artu zezaken elizik etzalako, elizatik kampaora itz-egin beañean arkitu

zan gure Santua, bada ogeitamar milatik gora etor-
tzen ziran bere itza entzutera.

Padua'rak ikusi zituzten mirariak asko ziran;
baña aien artean beresten diranak oek dira. Ama
batek seme elbari bat aurkezten dio, ta Antonio'k
Gurutze egiñaz berealaxe sendatuta geratzen da.
Aita gizarajo batek, naigabez beterik, bere alabatxoa
sendatzeko eskatzen dio, ta berak nai bezela senda-
tua geratzen da.

Padua'ko Leonardo'k aitortu zion Santuari, bere
amari ostiko bat emanda, gaizki ibili zuala. Anto-
nio'k bildura sartzearen, ta zer irain aundia zekaren
ostiko arek adiazteko, esan zion: «Anka orek
moztua izan bear luke». Gazteak zin-ziniez ari zalako-
an Santua, etxera joanda, aizkora bat arturik, moztu
zuan anka gaiztoa. Ama dana izutua ta naigabea-
ren indarez zoraturik, Antonioren bila joanda, bere-
bizikoak esan zizkion semeari eman zion burubi-
deagatik. Antonio'k ondo eramán zituan amaren
lasai - aldi aiek, eta bere etxera lagundu zion bere
miña gutxiago izan zedin. Antonio'k eriaren aurrean
jarita, bere oña artu zuan, uferatu zion ankari, ta
Gurutze egiñaz, bi alderdiak aragia ta ezurak be-
realaxe bat egiñak geratu ziran. Leonardo onik eta
sendatuta jaiki zan: eta ama semeak goraldtu zuten
beren Jauna, ta eskerak eman zizkaten Miragileari.

¿Zer zailtasun jarri zezateken pekatariak agiriko
adibide auen artean? Uri guztiak besterik zirudin,
oztearen gara aundia zan, auzitegiak jai - egiten
zuten, sal-erosiak gerorako uzten ziran, arteziak
beren lantegiak itxita zeuzkaten. Padua'ko biztanle
guztiak Antonio'k bere itzaldiak egiten zituan lekua
bilatzen zuten. Garizuma igarota, eliz-gizonak eta
zuzenburuak agerpen aundiz joan ziran Santuagana,



...bere oña uferatu zion ankari...

lenago ain otza zan erian egin zuan aldakuntzagatik
eskerak ematera, ta aldi berean eskatu zioten, aŕen,
bere itzaldiak idatzirik uzteko. Baietz ba, ta beren
eskuetan jaŕi zituan bere erakuspen onak *Lotazileko*
Itzaldiak.

IX

*Bolonia'ra biurtzen da.—Florentzia'n.—Irabazgoi-
zalea.—Asis'en.—Kardenal ez du
izan nai.—Ezelino.*

Padua'rak elkarren artean pakeak egin zituzte-
nean, eta Jaungoikoarekin ongi jari, Antonio Bolo-
nia'ra joan zan, oitura zuanez, bidean arkitzen zituan
uri guztietan bere itzaldiak egiñaz.

Ferrara'n batez ere luzaroago egon beara izan
zuan, uri onetan zeregin asko zualako, ta egin zituan
onbiurtzeak ugari izan ziran, eta mirariak aundiak.
Azkenik Bolonia'ra eldu zan, eta ango praileak
pozez eta maiteki artu zuten, aspaldi artan, beren
Probintzial maitea ikusteko zaletuak zeuden - da.
Santuak eratu zituan *Salmo*'en itzaldiak zeukaten
jakintza gabe eliz-elertia geratu etzedin, eta beren
onerako, praileak itzaldi oen bilduma emateko es-
katu zioten. Antonio'k biotz zamurekoa izanik, bere
eskuidatziak eman zizkien, beren atsegiñez irakurri
zitzaten.


Aldi onetan artu zuan Antonio'k Ordenako Bu-
ruaren idazki bat. Idazki onetan agintzen zitzaion
Florentzia'ra aldatzeko, bi sendi (famili) aundizkie-
netakoak, zein baño zeñek agindu bear zuan, uri
guztia nastua zeukatela-ta. Seme esagiña bezela,
berealaxe joan zan uri artara, ta an egin zituan bere
itzaldiak 1228'ngo. Lotazilan eta uringo garizuman,
eta bost ilabeteren buruan itzalita utzi zuan eritaeren
arteko guda (geña) ta pakean biztanle guztiak.

Oargafia da an gertatu zana. Florentzia'ko aberatsenetako bat ilik, bere iletan itzaldia egiteko deitua izan zan Antonio: Itzaldiburuz Ebanjelioko egi au artu zuan: «Zuen gordalua dagon tokian, dago zuen biotza». Asi zuan bere itzaldia Santuak, baña itz batzuek esanda, bat-batean geratu zan, eta gero goiargiz ateratzen zun abots ikaragarizko batekin esan zuan: «Il da aberats au, eta infernuan amildua izan da. Zoazte, ta ireki bere diruak dauzkan kutxa, ta an arkituko dezute bere biotza». Itz oekin entzule guztiak ari egiñik geratu ziran: aideak itzaldia bukatu zanean, etxera atxika joan ziran, kutxa ireki zuten, eta diru artean arkitu zuten, bizitzan beartsuaren odola miztu zuanaren biotza.

Florentzia'n egin bear zuana eginda, komentuetako ikusaldiak egiten jaraitu zuan, Vercelli'tik asita, Verese, Brescia, Verona, Mantua, ta Milan artzen zituala, oregatik bere itzaldiak utzigabe, ta erati ona zetořenean komentu beñiak eragiñaz.

1230'ngo. *Pentekostes* egun batzuek auřetik, Antonio Asis'a aldatu zan, Prantzisko donearen Gorputz aldakuntzaren elizkizuna egitera, ta ango Batzar Orokořean aurkeztu. Batzar onetan, guztien auřean, bere erki-burutza utzi zuan, azkatuago bere itzaldien eginkizunetara eman zedin. Joan Parente, Ordenako Buruak, artu zion bere agintzaren uzte au, ta esan zion, nai zuan komentuan bizi zediña: Ordenako Buruaren adi au eskeřez beterik artu zuan gure Santuak. Auřerakoan, bere bizitzak dirauen artean, Padua'izango da Antonio'ren bizilekua.

Zalantza batzuek sortu ziran Batzar onetan, Araudiaren esaera batzuek nola artu bear ziran. Aita Santuaren iritzia artzea obego izango zala-ta, batzordeko batzuek Beragana bialtzea erabaki zuten



...bere oñetan jañirik...

aien artean Antonio donea. Antonio aurrean beñero jañi zitzaionean, IX'gañen Gregorio asko poztu zan, eta onbide ta irabaziak merezi zutelako kardenal egin nai izan zuan; Santuak ordea etzuan goiende au artu nai izan.

Antonio'k, Erroma'tik Alberna-Mendiko bidea artu zuan, bakarti artan bere nekeetatik atsedean egin, eta gogonketa beñiak asteko indañoak artu zitzañ. 1230'ngo. urtearen azken aldera biurtu zan Antonio Padua'ra, eta ango biztanleak izutuak eta ikaraz arkitu zituan, eta estutasun artatik Santuak bakari onez atera zitzakean. Ezelino Erroma'r piri uzuak, erasoz artuak zeuzkan Verona, ta Italia-goiko eriak gudoztearen asere biziaren eskuetan utziañ. Piriaren gudozteak Padua'ko atietaraño etoriak zeuden, eta ikaraz eta bildurez arkitzen ziran biztanle guztiak. Estutasun onetan Padua'ñak Antonio'gana joatea erabaki zuten, berak esaten zuten, arisku aietatik onek bakari onez atera zitzakien-da. Gure Santua uria etsaien eskuetatik aldentzeko naiki bizian, joan zan Ezelino'gana-Verona'n zegoan-da-ta piriaren aurrean jañi zanean bildur gabe esan zion:

«¿Noiz arte piri gogor orek jañaituko dezu erugabien odola ixurtzen? Jaungoikoaren ezpata zure buru gañean dago, ta zure epaia izugaria izan da». Ezelino'ren agindu zai zeuden bere gudariak, ausardigabeko Praileagan eskuak jartzeko; baña etzien keñurik egin, piriaren biotzak ere Jaungoikoaren eskuetan daude-ta: bestela Antonio'ren abotsez dana izutua, bere onetan jañirik, aitortu zituan bere gaiztakeriak, eta agindu zuan damutuko zala, bere mende-koak ariturik uzten zitala. «Uste nuan, esan zien gero gudariei, Prailearen begiak bi onaztari bezela, nigana zetozeñ, ta infernura bota bear niñutela».

Piñiak maitetasun aundia artu zion Santuari, ta alditxo batean bere gaiztakeriak utzita egon zan. Baña geroago gogoraturik, Antonio'k egin zion ikusaldiaren iruimenez gertatu zitzaiozkan gauzak izango zirala-ta, Prailearen onomenaren argibideak artzeko eratu zan.

Onetarako eskaingai aberatsak biali zizkan, agindu onekin: «Eraman Antonio'ri eskaingai oiek. Baldin artzen baditu, burua moztu zaiozute; nai ez baditu atzera biurtu kalterik egin gabe». Beñi-eramale gaizto ta maltzur aiek aurkeztu ziran Santuagana, ta gezuñezko agur batekin esan zioten: «Zure seme Ezelino Eroma'rak zure otoitzak eskatzen ditu, ta eskatzen dizu eskaingai oek artu ditzazula». «Ori ez, iñola ere ez, erantzun zien Antonio'k. ¿Agian lapuñetako ta iñoren gauzen onura artu al nezake nik? Aldendu berealaxe emendik, eta etzaitezte etxe onetako santutasuna galtzeko ibili». Lotsatuak biurtu ziran gudariak, eta esan zioten beren nagusiari gertatutako guztia. «Ikusia dago, erantzun zien Ezelino'k, Antonio Jaungoikoaren gizona dala: utzi zaiozute pakean, nigatik nai duana esan dezala».

Ezin esan diteke, zer poz eta atsegiñez eta esker onez beterik artu zuten Padua'rak Antonio, ez ta ere eñi ta luñalde aiek agertu zuten ezagutza Santuari, piñi gaiztoaren atzapañetatik onez atera zitualako.


1231'ngo. Otsailaren 5-tik *Pentekostes* egun arte, Padua'ko *pulpitoak* bere esku euki zituan, bigarren aldi onetan bildurik, lenago zabaldua utzi zituan gari-buruak. Auek izan ziran Antonio'ren azkeneko itzaldiak: bere gogonketak bukatu dira, ta mirabe on eta zintzoari betiko saria artzeko ordua geratzen zaio.

X

Antonio donearen eriotza.—Mirariak.—Done-aitortzea.—Bere gorpuzkien aldatzea.—Munduguztiko Santua.

1231'ngo. Maiatzaren azken aldera, Antoniok, santu geienak oi dutenez, bakartegi batera alde-egin zuan, bere animakin eta Jangoikoarekin bakañik jarduteko asmoz. Garagañilaren auren aldetik, praile bik lagun egiten ziotela, Padua'ko inguruan zegoan baso-elizatxo batera joan zan, gogarketan bere gogoaren naikiak betetzeko. Gorputzeko indañoak aultzen ari zizkala ezagutu zuanean, askar baño askaño Padua'ko komentura biurtu zezatela agindu zuan; baña ezin eldu izan zan ara, bada eñian sartu ziranean, bere lagunak uste zuten an il bear zitzaiela, ain auldua zegoan, eta erabaki zuten uñean arkitzen zan *Santa Clara*'ren komentura eramatea, beretako batzuek mojen jaupari (kapelau) an bizi ziran-da.

Ostiralez, Garagañilaren 13-an, elizakoak artu zituan, bere pozaren zoramenenez abestu zuan, abots aulaz bada ere: *¡O gloriosa Domina!* Berealaxe eskatu zuan *Extremauntzioa*, ta bere baruan adi guztia jañirik, ikusten etzan norbaitek bere begiak eramaten zituan. *¿Zeri begira zaude?* galdetu zioten. «Jaungoikoa ikusten det», erantzun zuan. Oraindik ere Jesus eta Mariarekin elkañizketa gozoetan jañaitu zuan, aingeru baten para bere españetan zuala il zan arte, Jaungoikoaren gozatasunera igoaz.



...ikusten etzan norbait...

Mirariak berealaxe geitzen asi ziran bere erioztan. Bere azken asnasa eman zuan bezin laister, Pudua'ko umeak, goi-argiz mugiturik, kafika guztietan ojuka asi ziran: «*Il da Santua. Il da Santua*». Une artan bertan agertu zitzaion Vercelli'ko *Abade* bere adiskideari, ta esan zion: «Nere astotxoa Padua'n utzi det, eta zerura noa». Aldi berean gaxorik zeukan estaña ikutu zion, eta sendatuta geratu zan. Santua il zala umeai entzutean, uri guztiak atsekabe aundia artu zuan. Bere ileta (entieroa) ilen elizkizuna baño obeto zirudin, bere garaipenagatik norbait goratzen dutenen zoragaritasunaren agerpena. Alaxekoak ziran ango abestiak eta... Gorputza zeramaten bitartean, sendatuta geratzen ziran entzungoak, elbariak, itsuak, bere bitartekotasuna bilatu, eta bere il-oia ikutu zuten guztiak.

Antonio'ren Gorputza Prantzisko'ta'ren elizara eramana izan zan, eta an ilobi batean sartua. Laister asi ziran uritak eta arrotz ozteak ilobi oneri gurgiten; esan ere, bere inguruan egiten ziran mirariak eruz eta aundiak ziran; oegatik asmoa artu zuten lenbailen donetzat iragartzeko bideak artzea, eta sei elabeteren buruan IX-ga'ren Gregorio Aita Santuak bere biotzeko poz eta atsegiñez Donearen omenak eman zizkan. Bere jai-eguna Garagarilaren 13-anda. Au dala-ta jai ta jolas askorekin ospatu zuten Santua ibili zan eri guztiak, Padua ta Lisboa'n batez ere: emen kanpaiak berez joka asi ziran bere biztanleak aritzen zirala. Geroago, Antonio'ren eriotzatik ogeitamar urte lanean ari ta, eliza eder eta aundi bat egin zuten, eta ara aldatu zituzten bere gorpuzkiak, oi-ez bezelako gorapenakin, aundizki asko, aien artean Buenabentura donea, Ordenako Burua, aurkeztu zirala. Santuaren gorputza gordetzen zuan ilobia

ireki zutenean, gorputza auts biurturik arkitu zuten, mingaña bakañik, goñi ta gordiñik zegoan. Buenabentura doneak bere eskuetan artu zuan, eta begirunik aundienaz musu gozoak emanik, esan zuan: «¡O mingain donetsia! beti Jauna goraldu zenuana, orain ondo ikusten da, zenbat irabazi dezun Jaungoikoaren aurrean.

Apostoluen aro ezkerro, Elizan dizt-dizt-egiten duan Miragilerik aundiena Antonio donea da. Bizitzan eta il da gero zaspiz gizaldietan, egin izan dituan mirariak zenbatu ere ezin ditezke, eta len bezela orain ere, bai Europa'n, bai America'n eta kristauen bat arkitzen dan fedegabekoen luñaldietan, Antonio'ren eskua ondo agertzen da. Alde guztietan guregiten zaio: ez da eririk, danik txikiena izan da ere, aldare bat egin ez dionik, ez eta ere elizik bere irudien (imajiña) bat ez duanik. Buenabentura doneak ondo agertu zuan Antonio'ren almen aundia ereserki onen itz-neurtuetan:

Mirari bila zabilta?
Gaitz, oker, eriotza,
Legen, gaizkin igeska,
Gaixoak sendatuta.

Itxas loki azkatuak,
Gauz, gorpuzki galduak,
Eskatu t'artzen dituzte,
Gazteak eta zârtuak.

Añixkuak dira galdu,
Eta beañak aiendu,
Ikusi duanak esan du,
Padutañai galdetu.

Zaspireun urte oetan kristau sinisleak esaten ari dira ereserki au, zâra bai, baña beria, betiko bizitza ta eguneroko egipena, Santuak ematen dion ezkerro, beragana zuzentzen diranen alde egiten dituanean, an abesten diran mirariak.

Eriak Antonio'gan daukaten uste osoaren onurak dira, bere bitartekotasuna bilaturik Elizak onartu dituan Bilera. *Antonio Donearen Elkartasun Ona*, (Pia Union) Bilera onetan sartu ditezke sinisle guztiak. *Antonio'taren Gaztedia*: ta bere anzekoa, *Antonio'taren Aurtzaroa*, gazteak eta umeak onbidietan jartzeko iraziak, Santuaren onomenak antzetzuz. Aldi oetan batez ere, ainbat zabaldu dan: *Beartzuen Ogia*, Antonio-zaleak ematen dituzten limosnaz, ezin zenbatu ala beartsuri jaten ematen diona. Bilera oek guztiak barkapenez aberastuak daude.

Sinisleak Padua'ko Miragileaganako daukaten uste berak sortu du oen artean, Elizak onartu dituan beste gauza batzuek bere onespen berezia emanaz, *Ritual-Romano-Serafico* deritzaion liburuan ikusi leiken bezela, eta auetxek dira: Antonio zaleak bere jai-egunean Prantzisko'taren elizetara joateko duten oitura lili-bat bedeinkatzera, Padua'ko Santuak aragiaren zirikaldietatik onez atera ditzan. Santuaren Gurutzea lepotik zintzilik eramatea diabruaren ekiñaldietatik aldeztu ditezten: Umien onespena, Antonio doneari deituaz, amak beren semeak Santuari eskeintzeko duten oiturari zor zaie.

Ori obei bukaera ematera goaz XIII-garen Leon Aita Santuarekin esanaz: *Antonio Donea mundu guztiko Santua dala*. Santu orokoña bere mirari berdiñezakatik: Santu orokoña mundu guztian guregin eta oneraspenez deitzen zaiolako.

¡O Antonio aintzatu! beritu itzazu Elizan igaro-

tako garaipenak, eta kristau bakoitzean Jaungoikoak nai duan bizitza on ona. ¡O Miragile Aundia! iritxi zaiguzu Jaungoikoarengandik zure apaldasuna, zure ardura, Jesus eta Maria'ganako zure maitetasuna, zurekin zeruan atsedean dezagun.

*Jaungoikoaren
Arantzazuko bere Ama Donearen
eta
Paduako Antonio
Zoriondunaren Goraltzarako.
Alaxe.*

OTSAILAREN AMABOSTERA KO

ANTONIO DONEARI

BERE GORPUZKIEN ALDAKUNTZAREN OROIPENEAN

GURUTZE SANTUAREN... DAMU-OTOITZA

Jesukristo nere Jauna, egiazko Jaungoiko-Gizona ta Egilea, nere pekatu guztiak garbituta, beren kate gogoretatik nere anima onez atera zenuan Salbatzale maite ori, zure aurrean auzpezturik eta nere biotz guztiarekin goraturik, maite zaitut beste ezer baño geiago. O Jauna! Zure kontra ainbeste pekatu egiñaren damu naiz. Geiago pekaturik ez egiteko asmoa artzen det, eta uste osoa daukat nere oker guztien barkapena emango didazula; orobat grazia Zure mirabetzan azkenarte irauteko, betiko bizitza iritxi dezadan. Amen.

IRAKURKIZUNA

1263'ngo. Oñilaren 7'an San Prantziskoren semeak bukatua zeukatzen Padua'n eliz aundi eder bat, Antonio Donearen Gorpuzkiak aldatzeko. Bere omena zabaldua egonik, esan bearik ez dago, elizkizunak

aundiak izan zirala. An arkitzen zan Buenabentura donea ere, Ordena guztiko Burua.

Elizkizunak egin aurretik ireki zuten bada il-oia, ta ezurak beren lekuetatik azkatuak eta aragia autsegiñik arkitu zituzten: bakañik bere burua zegoan osorik, bere aboan mingaña, goñi-goñi ta gordiñik zeukala, bizi zanean bezelaxe. Zabaldu zuten aboa, atera zuten mingaña, ta Buenabentura doneak eskuetan arturik eta musu gozoak emanaz, esan zuan: «O mingain donetsia, Jaungoikoa beti goratu, ta besteai goratzen erakutsi zenienal! Orain argiro ikusten da zenbat irabazi izan dezun Jaungoikoaren aurrean!» Eta musu gozoak emanaz agindu zuan berexi jartzeko.

Montferrate'ko Gido Kardenalak, Antonio doneak eriotzatik onez atera zuala ezaguturik, 1350'ren urtean bere il-obira joan zan eskerak ematera; ta Agilera'ko Patriarkak, Artzobispo batek eta iru Obis-pok lagun egiten ziotela, bere Gorpuzkiak beste *Kapila* batera aldatu zituan. Kardenal onek agindu zuan zilarrezko Santuaren irudi bat egiteko, ari ta pitxi askoz apaindua, bere buru bañuan kaskoa, kokotza ta beso ezur bat gorde zitezen.

Kardenal Razonico, Paduako obispoak, geroago XIII'gañen Klemente'ren izenarekin Aita Santu izan zanak, 1745'go. Garagañilaren 20'an eliz-gizon, aundizki asko, ta eri guztiak lagun egiten ziotela, mingain gordin ta bizia zirudin au, bost eun urte Sakristian zeramazkielarik, orain gurtzen dan *Kapila* berri ontara aldatua izan zan.

Zer oroipen goragañiak oek Antonio donearen maitatzalientzat! Al bere Gorpuzkiak eta mingain gurgañiak ikusteko zoriona izango bagenu! Oraingoz gorputzez gure ikusaldia ezin genezaken ezkerro;

gogoz beintzat joan gaitezen gauza miragafi auek gordetzen dituan Eliz aundi eder au ikustera, ta eskatu dezaiogun Antonio doatsuari, bere begikoak bezela artu gaitzala, ta bere laguntza eman dezaigula.

Gogoratu beza norberak, eta eskatu bezaio Santuari opa duan grazia.

ESKARIA

Santu Miragilea, zure mingaña bear bezela ibili zenualako iritxi zenituan irabaziakatik, eta zure jakintza ez agertzearen izan zenuen ilduragatik, eskatzen dizugu, Jaunari aŕen egin dezaiozula nere mingaña garbitu dezan, bere izen santua donetsi, goraldtu ta aintzaz betetzeko aña izan dedin, eta besteai ere orobat egiten erakutsi dezaiedan. Amen.

Iru Aitagure, Agur Maria eta Gloria.

BUENABENTURA DONEAREN DEIKUNA

O mingain donetsia, Jaungoikoa beti goraltzen zenuana ta besteai goraltzen erakusten zenienal! Orain argiro ikusten da zenbat irabazi zenuan Jaungoikoaren aŕean.

V. Gure alde otoi egizu Antonio Donea.

R. Kristoren agindu-sariak iritxi ditzagun.

OTOITZA

O Jauna! Antonio zure aitorle doneak gure ordeztz egin dezala, bere mingaña usteldu gabe

gorde zenuan ezkerro, ta egizu, guk gure mingañaz
egin ditugun pekatuen barkapena iritxita, Zure izen
santua donetsi dezagula, garbi itz-egin dezagun eta
egunen batean zeruan elkar ikustera eldu gaitezten.

Amen.

ARKIBIDEA

	<u>Ofi- aldeak</u>
Itz-auñea	3
I.— Antonio donearen jaiotza ta gurasoak. — Ikaste- txean.—Agustin'daña.—Lenengo mirariak. . . .	5
II.— Prantzisko'tar bost martiriak. — Antonio doneak martiri izan nai du.—Prantzisko donearen Ordo- nan sartzen da	12
III.— Antonio donea Mañukuetara abiatzen da.—Batzar Nagusira dijoa.—Monte Paulo'n.	17
IV.— Antonio donearen jakintzaren agerpena. — Bere gogonketa asten du. — Jakintzua. — Vercelli'n.— Iña piztua	22
V.— Antonio donea Frantzia'n. — Montpeller'en biz- tanle.—Alelluya.— Eresi-liburuaren lapurketa. — Tolosa'n.—Maria'ren Jasokundea.—Puy'ko Guar- diana.—Barataria (Eskibaua) Martiri.	25
VI.— Santua Bourges'en.— Entzuleak legoñean.—Jeses Eukaristia'n aldezen du.—Mandoaren miraria.— Prantzisko donea Arles'en.—Antonio Limoges lu- ñaldeko komentuen nagusi. — Mirariak. — Jesus Antionioren besoetan.— Diabrua aientzen du. . .	30
VII.— Antonio donea Eñoma'n.—Izkeren doaia.—Anto- nio Bolonia'ko erki-buru. — Añaiei itzaldia. — Il bat piztua	38
VIII.— Antonio Donea Padua'n.—Mirari beñiak.—Lota- zilako (Abenduko) itzaldiak idazten ditu	43
IX.— Bolonia'ra biurtzen da.— Florentzia'n. — Irabaz- goitzalea.—Asis'en.—Kardenal ez du izan nai.— Ezelino	47
X.— Antonio donearen eriotza. — Mirariak. — Done- aitortzea. — Bere gorpuzkien aldatzea. — Mundu guztiko Santua	52
Otsailaren amabosterako.	58



